



Euskal zinearen hedapena aitzina!

2016eko irailaren 15a - Baiona



1. Testuingurua

Euskal zinemari dedikatzen zaion banatzailerik ez izanez, Euskal Kultur Erakundea (EKE) urte luzeetan ari izan da euskal zinema Ipar Euskal Herrian ezagutarazten eta banatzen. Horrela, lurraldeko zinema-jabeekin partaidetzan, kalitatezko zinema bazela eta publikoak biziki gustuko zuela erakutsi dugu. Bere ekoizpenaren jatorrizko lurraldean oinarritzen den zinema bat, Euskal Herrian kokatzen dena edo, euskarak leku nagusia edo bederen ohargarria duen zinema bat.

Euskal Kultur Erakundeak lagundurik, Cinéma & Cultures elkarteak zine banaketa desmartxa batean sartu da lurraldetasun logika natural bati erantzunez. Horren helburua ikusleei kalitatezko ekoizpena geletan ikusteko posibilitatea eskaintzea da, *Centre National Cinématographique (CNC)* erakundearen legeak errespetatzen duten baldintza normalizatuetan.

Benetako abantailak

Ohartu gara euskal zinema banatzeko egitura batek lekuko mailan funtzionatzen ahal duela eta lurralde honetako bizilagunen beharrei erantzuten diela, zinema eskaera azkarki emendatzen ari dela, bereziki euskaraz. Hala nola, Asier Altunaren "Amama" filmak erakutsi duen bezala milaka ikusle bildu ditu aurtengo negua eta udaberria artean.

Gainera, Euskadi mailan ekoizpen perspektibak frango onak agertzen dira aurtengo Donostiako Zinemaldian 17 luze metraia aurkeztuko direlarik (horietarik 16 dokumentala). Zenbaki haundi horiek bat egiten dute proposamenen kalitatearekin, berriki «Loreak» (2014) eta «Amama» (2015) euskarazko filmek arrakasta handia erdietsi baitute, Donostiako zinemaldiko sail ofizialean izanki, nazioarte mailako potentziala dutela frogatuz.

Atalante zinema gelaren sinesgarritasun profesionala, bai zinema-jabe gisa eta bai zinema alorreko baliabide zentro gisa, lurralde mailako gela sare baten eraikitzea aukera eman du, EKEren bermeaz baliatuz. Horrela, banatutako filmek pantailetan luzaz egoteko aukera lortu dute. Azkenik emanaldien inguruan kalitatezko animazioak antolatzea, bai publiko zabalari eta bai eskoletako publikoari zuzendurik trukaketa aberatsak sortu ditu bai Iparraldean, Biarnoan edo Avignon-en...

Begiztatu trabak

Haatik, iraunkorra izateko, haren garapenak baliabide sendoak behar ditu, jarduera ekonomikoaren eta lurralde zabaleko egitasmo kulturalaren artean kokatuz. Laguntza instituzional berezi batetik kanpo, Eskualdean eta Frantzian banatzeko egitura batek izan dezakeen garapena aski ahula da hainbat arrazoiengatik :

- denbora erdiz ari den langile bat.
- nekez bizi den eremuan lehia sortuko duen jarduera bat.
- arrisku handia egiturarentzat eta partaideentzat, irabazirik ez baldin bada.
- euskal zinemaren ekoizpenak ukanen duen harrera desberdina izan daiteke, publikoari proposatu film luzeen arabera.
- diru laguntza publikoen mentura guti: CNC erakundeak eta Europak banatu laguntzak eskuratzea ez da segur, eta bestelako diru laguntza publikorik (Estatua, Departamendua, Eskualdea) momentuko ez da aurreikusia.

2. Zineuskadi eta Cinéma & Cultures elkarteekin partaidetzak

Gisa horretako egitasmo batek mugaz gaindiko alderdi argi bat dauka. Helburua da Ipar Euskal Herria hegoaldeko zinemaren industriaren segida natural gisa segurtatzea, ekoiztetxeekin, nazioarteko saltzaileekin eta filmgintza alorreko gertakari handiekin -hala nola Donostiako Zinemaldia, Iruñeako Punto de Vista edo Bilboko Zinebi festibalekin- dinamikak sortzea. Alabaina, Euskal zinema Iparraldean banatzea ez da helburu bakarra, Akitania Limousin Poitou Charentes eskualde berrian eta Frantzia osoan banatzeko abiapuntu bat baizik.

Azken bi urteko esperiantzian oinarriturrik, EKEk ZINEUSKADI elkarteari euskal zinearen aldeko egitasmo garapen bat aurkeztu egin dio uda hasieran Partaidetza hitzarmen bat lotu egin dugu bi egituren artean euskal zinearen hedapena Frantzian eta Iparraldean sustatzeko. ZINEUSKADI irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta kide fundatzaileen artean daude Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskadiko produktoreen bi elkarteak : IBAIA eta EPE-APV. 2014 urtetik Euskal Irrati Telebista, Festival Internacional de Cine de Donostia San Sebastian S.A. eta Fundación FilMOTECA Vasca erakundeak ditu bazkide.

Euskal ikus-entzunezkoen sektoreari laguntza estrategikoa ematea du xede nagusi eta, ildo horretatik, enpresei eta profesionalei laguntza eskaintzen die nazio, Europa eta nazioarte mailan garatu eta zabaldu daitezten.

Partaidetza honi esker, EKEk Cinéma & Cultures elkartearen banaketa jarduera garatzeko laguntzen al du, euskal zinearen ikusgarritasuna haunditzeko asmoz baita ere filma kopuru zabalagoa programatzeko.

3. Euskal zinemaren banaketa: goranzko joera



AMAMA (2016)

- **26 zine gelek filma programatu dute**

horietarik 20 Akitanian

- **300 emanaldi baino gehio izan dira**

horietan hogeitabi topaketa Asier Altuna filma egilearekin (publiko zabala eta ikasleak)

Orotara 10 200 sarrera

2029 Atalanten, 1721 Donibane Lohitzuneko Select zinean eta 1106 Bordaleko Utopian

LASA ETA ZABALA (2015)

- **10 zine gelek filma programatu dute**

horietarik 20 Akitanian

- **60 emanaldi izan dira**

horietan hamar bat topaketa Pablo Malo filma egilearekin (publiko zabala eta ikasleak)

- **Orotara 1800 sarrera**

588 Atalanten, 233 Donibaneko Select zine gelan

ASIER ETA BIOD (2014)

- **11 zine gelek filma programatu dute**

horietarik 10 Akitanian

- **50 emanaldi izan dira**

horietan sei topaketa Aitor Merino filma egilearekin (publiko zabala eta ikasleak)

- **Le cumul des entrées s'élève à 2200**

525 Atalanten, 275 Donibaneko Select zine gelan

Pirinio Atlantikoetako departamenduan euskal film batek duen sartzeko kopurua, 2014an eta 2015ean, 2 000 ikusleren ingurukoa izan da, dozena bat gelatan, lau eta sei hilabeteren arteko epean. Ondoko hiru filmak banatu dira: Aitor Merinoren *Asier ETA biok*, Elsa Oljar-Inèsen *Dans leur jeunesse il y a du passé* eta Pablo Maloren *Lasa eta Zabala*.

Emanaldi horiek piztu interesa, askoz handiagoa izan daitekeen ikusle kopurua baino haratago, bere lurraldea islatzen duen zinema partekatzeko beharra erakutsi dute, bizilagunak hain dira holako proposamenez gose. Hiru film horien ibiltzeak lurraldeko zinema-jabeen elkar aditza indartzeko, gelen artean filmen ibiltzea optimizatzeko, pantailetan egonen direla segurtatzeko eta filmen inguruko animazioaren koordinatzeko posibilitatea eman du.

2016ko urte hastapen honetan, Asier Altunaren *Amama* filmak ongi erakusten du banatzea hobetu dela. Filmak bildu dituen sartzeko kopurua aitzineko filmetakoak baino hiru aldiz handiagoa izan da eta ipar Euskal Herri bakarrean, 7 000 baino gehiago izan dira soilik Iparraldeko lurralderako, 10 200 sarrera heltzeko agorrilaren 31an. Konparatzeko gisan, Roberto Castonen «Ander» filmak Hexagono osoan 11 000 sartzeko bildu ditu. Asier Altunaren filma hortik hurbil ibiliko da, banaketa oraindik segitzen baitu.

Oraingo sareak *Art & Essai* 25 zinema gela biltzen ditu:

- Euskal Herrian: Atalante zinema gela (Baiona), Royal zinema gela (Biarritz), Itsas Mendi zinema gela (Urruña), Sélect zinema gela (Donibane Lohizune), Aiglon zinema gela (Kanbo), Vauban zinema gela (Donibane Garazi), Saint-Louis zinema gela (Donapaleu), Maule Baitha zinema gela (Maule), Haritz Barne zinema gela (Hazparne), Variétés zinema gela (Hendaia)

- Bearnoan: Méliès zinema gela (Paue), Saleys zinema gela (Saliese), Pixel zinema gela (Ortheze)

- Akitania Limousin Poitou-Charentes eta Languedoc Roussillon Midi Pyrénées eskualdeetan: *Utopia* gela sare nagusia.

4. Perspektibak



AMAMA filmaren banaketa luzatzen delarik, JAI ALAI BLUES dokumentalarena hasten da. Nabarmenki, dokumentala ateraldi xumeago bat da, Jai Alai istorio zoragarriaren kontakizuna, bere hastetik gaurko egunetara, amerikan ezagutu zuen urrezko aroa ahantziz gabe. *Asier eta biok* filmak lortu zituen sarrera eta diru sartze kopuru berdintsuak aurreikusten ditugu baina zine gela gehiago hunkitu nahi genituzke. Zine geletan eta pilota munduko kideekin antolatu egin dira lehen eztabaida gaualdiak puntistak, pelotariak eta zaleak bilduz. Lan haundia egin izan da ere komunikazio mailan proposamen berezi hori argitan emateko eta publikoa hurbilazteko.

2017ko urteari begira, banaketa jardura egituratzearen kari, aktibitatearen garatzea aurreikusten da urritik goiti langile berri baten kontratazioari esker. Urtean zehar 3 filma banatzea helburutzat hartzen da eta Donostiako Zinemaldiaren aurtengo edizioak lehen pistak emanen dizkigu.

Erdiko epera, xantier desberdinak lantzen hasiko gira. Lehena haur publikorako zinearena da. Lurraldeko hainbat partaideekin lanean, haur publikoari katalogo baten eskaintzeko parada aurreikusten da. ZINEUSKADIren "Zinema euskaraz" dispositiboari esker, beste hizkuntzetan

diren filmak euskaratzen al dira eta gazte publikoari aurkeztu. Hots, Iparraldeko eskoletan kalitatezko filmak eta dagokion materiala pedagogikoa proposatzea da ekintza kulturala horren helburu finala.

Hildo beretik, gure ondarearen parte diren filmak erakusteko aukera kontenplatu da ere bai, euskal zinematografia bere osotasunean ezagutarazteko.

Ondorioa

Sorkuntza artistikoak lurralde baten bizitasuna adierazten duela konbentziturik, haren banaketaren jarraitutasunaren eta koherentziaren alde lanean ari gara. Pasatzaile izaera aldarrikatzen dugu, kate luzeago baten katebegi soila, baina ezinbestekoa, filmek beren publikoa kausi dezaten. Alabaina, asteazken guzietan hamar bat film gutienez ateratzen direlarik, ekoizpen mundializatu eta estandarizatuko film kopuru bat barne, garrantzitsua da, berdin urgentziazkoa, lurraldeko zinema biziaraztea, zinema bizia eta urrun heldu nahia, munduaren ikuspegi berezia, euskalduna eta unibertuala proposatzen duena.